

"Noizbait iritsiko al naiz, azkenean?"

Jon Eskisabel

Euskaldunon Egunkaria, 1999-07-28: 35.

Koldo Izagirre eta Inazio Mujika Iraolaren hitzaldien ondoren, Martin Ugaldek berak hartu zuen hitza, kazetaritzatik ipuingintzarako bidaia azaltzeko.

"Exilioan ikasi nuen idazten, eta erdaraz. Horrek markatutako idazlea naiz. Kazetaritza bide dela, bizitzea lortzen nuen ikasi nuen idazten", adierazi zuen, eta segidan anekdota umoretsu bat kontatu zuen. "Banuen lagun bat nirekin batera idazle izan nahi zuena. Zain da oraindik. Egun batean esan nion ea etorri nahi zuen nirekin Caracasko erredakziora eta ezetza eman zidan. Kazetaritza kolorea ez zen, nonbait behar zuena. Zazpi urte geroago, sari bat irabazi nuen. Joseba laguna, 50 urte geroago oraindik lizentziaturako lehen kurtsoan baino ez dago".

"Egoera sozial politikoarekiko errebeldiak eta etorkinak bere herriko agertoki eta hizkuntzetatik kanpo ikusteak bultzatu ninduen idaztera", azaldu zuen; "beti gizaki bera sofritzen ikusteak", hain zuzen. "Pertsonaiengana hurbiltzeko askatasun bila ibili naiz beti", gaineratu zuen. "Herritarren miseriak eta sofrimendua deskribatzea ez nuen gustuko. Sortzaile gisa ez nintzateke libre sentituko. Kazetaritzak deskribatzen irakatsi zidan bezala, nahi nuen nire esperientziarekin osatzea. Literaturan, interiorizazio sakonaren bila joan naiz, esentziaren bila". "Ibilian ibiliaz, betiko bideak egunero ikasten. Noizbait iritsiko al naiz azkenean?", galdetu zuen.